

**DONEZTEBEKO ALKATEAREN
EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ
UDALAREN IRUZURRAREN AURKAKO
BATZORDEA ERATZEN BAITA.**

Europako Kontseiluak 2020ko ekainaren 21ean onartu zuen Next Generation EU programa sortzea, koronabirusak eragindako krisiari aurre egiteko ekonomia suspertzeko tresna gisa. Suspertze Funtz horren muina da Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren bidez ezarria.

Espainiako Gobernuako Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak HFP/1030/2021 Agindua onartu zuen, irailaren 29an, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzea xede.

Agindu horren 6. artikulua arabera, STEPeko neurrien betearazpenean parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok iruzurraren aurkako neurrien plan bat izan beharko du, dagokion jardun-eremuan aplikatzekoak diren arauen arabera erabili direla bermatzeko eta deklaratzeko, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokionez.

Udalaren Osoko Bilkurak, 2023ko azaroaren 27an egindako bileran, Donezteko Udalaren Iruzurraren aurkako Neurrien Plana onartu zuen, Next Generation EB funtsak kudeatzeko.

Onartutako Planaren 4. puntuak ezartzen du Iruzurraren aurkako Batzordea dela iruzurraren aurkako neurriak behar bezala aplikatzeaz arduratzen den organoa, prebentzioaren, detekzioaren eta erreakzioaren arloan, eta Alkatetzaren ebazpen bidez eratu beharko dela, Plana onartu ondoren. Batzorde horren eginkizunak eta funtzionamendu-araubidea ere ezartzen dira.

**RESOLUCIÓN DE LA ALCALDESA DEL
AYUNTAMIENTO DE DONEZTEBE
SANTESTEBAN, POR LA QUE SE
CONSTITUYE LA COMISIÓN
ANTIFRAUDE DEL AYUNTAMIENTO.**

El Consejo Europeo aprobó el 21 de junio de 2020 la creación del programa Next Generation EU, un instrumento de estímulo económico en respuesta a la crisis causada por el coronavirus. El Mecanismo para la Recuperación y la Resiliencia, establecido a través del Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021, es el núcleo de este Fondo de Recuperación.

El Ministerio de Hacienda y Función Pública del Gobierno de España aprobó la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

En virtud del artículo 6 de la citada Orden *“toda entidad, decisora o ejecutora, que participe en la ejecución de las medidas del PRTR deberá disponer de un Plan de medidas antifraude que le permita garantizar y declarar que, en su respectivo ámbito de actuación, los fondos correspondientes se han utilizado de conformidad con las normas aplicables, en particular, en lo que se refiere a la prevención, detección y corrección del fraude, la corrupción y los conflictos de intereses.”*

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 27 de noviembre de 2023, aprobó el Plan de Medidas Antifraude del Ayuntamiento de Doneztebe Santesteban para la Gestión de los Fondos Next Generation UE.

El punto 4 del Plan aprobado establece que la Comisión Antifraude es el órgano responsable de la adecuada aplicación de las medidas antifraude en materia de prevención, detección y reacción y deberá constituirse por Resolución de Alcaldía tras la aprobación del Plan. Se establecen también las funciones y régimen de funcionamiento de dicha Comisión.

Azaldutakoa oinarri hartuta, eta toki-araubidearen arloan indarrean dagoen legeria betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Doneztebeko Udalaren Iruzzurraren aurkako Batzordea eratzea, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindutik eratorritako iruzurraren aurkako borrokaren arloko legezko betebeharrak konplitzeko.

Bigarrena.- Iruzzurraren aurkako Batzordea Udal honetako langile hauek osatuko dute: idazkaria, Batzordearen buru izanen dena; arkitekto teknikoa; kontu-hartzailea, bileren idazkari izanen dena.

Hirugarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea izendatutakoei.

Laugarrena. Ebazpen hau argitaratzea Udalaren Gardentasun Atarian.

Bosgarrena.- Ebazpen honen berri ematea Udaltzaren Osoko Bilkurari, kide anitzeko organo horrek egiten duen hurrengo ohiko bilkuran.

En base a lo expuesto, y en cumplimiento de la legislación vigente en materia de régimen local,

RESUELVO:

Primero.- Constituir la Comisión Antifraude del Ayuntamiento de Doneztebe Santesteban, con objeto de dar cumplimiento a las obligaciones legales en materia de lucha contra el fraude derivadas de la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre.

Segundo.- La Comisión Antifraude estará integrada por el siguiente personal de este Ayuntamiento: secretario, que presidirá la Comisión; arquitecto técnico; interventora, que ejercerá la secretaría en las reuniones.

Tercero.- Notificar esta resolución a las personas designadas.

Cuarto.- Publicar esta resolución en el Portal de Transparencia del Ayuntamiento.

Quinto.- Dar cuenta de la presente Resolución al Pleno de la Corporación en la próxima sesión ordinaria que dicho órgano colegiado celebre